

DEKANOA

- EZAGUTZA ETA AITORPENA -

Aurkezen honetan zer esan daitekeen hausnartzen ari nintzela, ikusi nuen buletin honen aurreko zenbakian azaldutako gogoeta batzuk egokiak direla oraingo zenbakirako ere.

Lehenengo gogoeta irakaskuntzari dagokio. Irakaskuntza da Fakultatean ezagutza transmititzeko modurik garrantzitsuenena. Hori horrela, transmitituko ezagutza hori baliagarri izan behar zaie gure tituludunei, gizartea hobetzeko.

Alabaina, gure irakaskuntzaren kalitatea eztabaidaezina izan dadin, kanpoko aitortpena jaso behar dugu. Iragan ikasturtean, gure Fakultatean eskaintzen diren graduak titulazio guztien kanpoko ebaluazioa egin zen gure ikastegian, akreditazioak lortu ahal izateko. Buletin honetako artikulua batean azaltzen da akreditazio prozesu hori; dena dela, esan dezaket Fakultatean eskaintzen diren gradu guztiei eman dietela oniritzia eta, beraz, guztiek lortu dutela Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan lehiatzen jarraitzeko akreditazioa. Horrek garbi erakusten du gure ikastegian ematen den irakaskuntzaren kalitate ona.

Bestalde, bigarren gaia ikerkuntzari dagokio. Ikerkuntza da, hain zuzen ere, ezagutza berria sortzeko modua. Gure Fakultatean ikerketa lan handia egiten da. Hori bai, ikerketa, gaur egun, askotariko diziplinako ikerketa handiak sortzera bideratzen ari da pixkanaka. Gure Fakultatean urrats garrantzitsuak egin dira bide horretan; horren erakusgarri dira elkarlaneko ikerkuntzarako lau egitura handiak (PIUak). Gainera, agerikoa da elkarrekiko ezagutzarako aukera gehiago lortu nahi izan direla, elkarlaneko ikerkuntza berriei bide emateko. Iaz Fakultateko Ikerkuntza Jardunaldiak egin ziren, baina, horrez gain, beharrezkoa zen elkarrekiko ezagutza hori doktorego tesiekin ari diren ikertzaile gazteei ere zabaltzea. Era berean, komeni zen analisi metodologia berriak aurkeztu eta eztabaidatu ahal izatea, kalitate handiagoko ikerketak egiteko. Hori dela eta, Fakultateko doktorego programen arteko lankidetzari esker eta gure laguntza xumearekin, Ekonomia eta Enpresako Doktoregoen I. Jardunaldiak egin ziren urriaren 7an, 8an eta 9an. Uste dut, bada, guztiok zoriondu behar dugula geure burua, lortutako arrakastagatik.

Azkenik, Fakultateko kideek edo Fakultatearekin zerikusia dutenek hainbat arlotan jasotako sari eta aitortpenen buruzko informazioa ere ematen da buletinean. Zorionak haien guztiei, eta eskerrik beroenak egindako lanagatik.

Arturo Rodríguez

Arturo Rodríguez, RACEF Ekonomia eta Finantza Zientzien Errege Akademiako kide

2015eko abenduaren 10ean, RACEF Ekonomia eta Enpresa Zientzien Errege Akademia kide oso izendatu zuen gure dekanoa, Bartzelonan, erakundearen egoitzan. Akademia 1958. urtean sortu zen ofizialki, Hezkuntza Nazionalako Ministerioak onetsi eta erakunde ofizial zientifiko eta tekniko izendatu zuenean. Dena dela, 1940tik zebilen lanean.

RACEFeko gaur egungo presidente Jaime Gil Aluja jaun doktorearen eskutik, erakundeak ahalegin berezia egin du munduko erakunde eta akademia garrantzitsuenetako ikertzaile eta akademikoan

artean lankidetzaz zientifikoak sustatzeko. Lankidetzaz horrekin, ezaguera zientifiko eta teknikoak partekatu eta baterako ikerkuntza indartu nahi da, hala biltzar eta topaketak antolatuta nola erakundearen argitalpenak eta txostenak kaleratuta. Azken urte hauetan indar handiagoa hartu du nazioarteko alderdiak, Ikerketa Ekonomiko-Finantzariorako Behatokia sortu baitute. Behatoki horrek, 2009az geroztik, herrialde jakin bateko egoera ekonomikoaren txostena egiten du urtero, Espainiako enpresen inbertitzeko aukerak eta trukeak ahalbidetzeko.

Arturo Rodríguez RACEFeko kide urgazle izan da 2002. urtetik. Beraz, akademiaren ordezkari izan da lurralde eremu jakin batean; hain zuzen ere, Errioxan, irakaslearen jatorri akademiko eta pertsonalean. Orain kide oso izendatu dutenez, eskubide osoko kide izango da beste 48 akademikorekin batera, eta erakunde horren jardura guztietan parte hartu ahal izango du, hala estatuan nola nazioartean. Zehazki, 22. kide osoa izango da, eta bizi osorako bere gain hartuko du Camilo Prado irakaslearen kargua; hark maiz eman zituen hitzaldiak Fakultate honetako Finantzen Graduondokoa.

RACEFek bere baitan hartu ditu Ekonomiako zenbait Nobel sari-dun. Arturo Rodríguez akademiko izendatu dute irakaskuntzaren eta kudeaketaren arloan dituen merezimenduetatik, baina, bereziki, ikerketaren arlokoengatik; Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean eta Finantza Ekonomia II Sailean ikertzen du, gure Unibertsitatean, eta oso loturik egon da Emilio Soldevilla irakaslearekin; hark sortu zuen Saila, eta hura ere akademiko urgazle izan zen 1975etik, 2000. urtean hil zen arte.

Arturo Rodríguezek, akademiko izendatzeko ekitaldi ofizialean, "Las personas, fuente de innovación y creación de valor en la empresa" hitzaldia eman zuen; Akademiaren webgunean jarriko dute ikusgai (<https://racef.es/>). Ekitaldian izan ziren, besteak beste, akademiaren eta enpresen munduko hainbat pertsona ospetsu, Amaia Maseda eta Amaya Zárraga UPV/EHUko errektoreordeak eta Finantza Ekonomia II Saileko kide ugari. Bada, ekitaldi bereziberezia egin zuten RACEFen egoitzan, non zorrotz bete baitziren tradizioak zein protokoloa.

Jesus Matey de Antonio

Finantza-Ekonomia II
sailaren Zuzendaria

Arturo Rodríguez, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoa, RACEF Ekonomia eta Finantza Zientzien Errege Akademiako kide oso izendatu dute

AECOC elkarteak Fakultatean defendatutako GRAL bat saritu du

Gure Fakultateko Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Gradu ikasle Laura Marcaidak irabazi du AECOC 2015 Akademia Sarien accesita, marketin kategorian.

AECOC enpresa elkarteak kide dira Espainian kokaturiko 25.000 enpresa baino gehiago; hau da, kontsumo masiboko merkatuetan hala fabrikatzaile eta hornitzaileen aldetik nola banaketa bideetatik diharduten enpresa garrantzitsu ia guztiak (Espainiako BPGaren % 20 inguru).

Laura Marcaidari eman zioten 1.000 euroko accesita, "Marketing Ecológico: Análisis teórico, estudio empírico a consumidores y análisis del diferencial de precios" GRALa-gatik (M^o Soledad Aguirre irakasleak zuzendu du).

Unilever Españaiko buru Jaime Aguilera jaunak banatu zuen saria, azaroaren 17an Madrilgo Kasinoan egin zen ekitaldian, eta bertan izan ziren enpresa eta kazetaritza mun-



duko pertsona garrantzitsu asko: besteak beste, Eroski taldeko gaur egungo presidente Agustín Markaide (haren mahaikide izan ziren ikaslea eta irakaslea) eta talde horretako presidente ohi Costan Dacosta. Bestalde, Matías Prats kazetari ezaguna eta El País egunkariako zuzendari Miguel Angel García Vega ere ekitaldian izan ziren; Pratsi Kazetaritza Ibilbidearen Saria eman zioten, eta García Vegari, berriz, Enpresa Lehiakortasunaren Kazetaritza Saria, Todas las empresas quieren seducir a los 'millenials' artikulua interesgarriagatik.

AECOC elkarteak urtero antolatzen ditu sariok, enpresen arteko elkarlanaren onurak ondoena aztertzen dituzten lan akademikoak nabarmentzeko (hala graduakoa nola graduondokoa), balio katea, eraginkortasun jardunbideak, berrikuntza, teknologiaren garapena eta enpresei lehiakorrago izaten laguntzen dieten neurriak kontuan hartuz. Izan ere, AECOCek balio eta jardunbide horietan sustatzen ditu Espainian. Gainera, lan sarituak AECOCen Ikasgela Birtualean argitaratzen dira, eta AECOCen Akademia Komunitateak aitortpena ematen die.

Gure fakultateko graduen akreditazioa

Komunikazioaren aroan gauden honetan, guzti-guztiok (pertsonok, enpresek, erakundeek...) beharrezkoa dugu modu sinesgarrian komunikatzea egiten ditugun jardueren kalitatea. Sinesgarritasun hori, hein handi batean, kanpoko eragileek egiten duten ebaluazioak bermatu ohi du.

Hori dela eta, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan (EEES) -jendeak "Bologna gunea" deitu ohi dion ezarritako esparruan aitortzea nahi diren titulazio guztiei ebaluazioa egin behar zaiela aldi berean; horri, hain zuzen ere, "akreditazio prozesua" esaten diogu. EEESren sareak baimendutako agentzietako batek egin behar du ebaluazio hori; kasurako, Unibasqek, Euskal Unibertsitate Sistemako Ebaluazio Agentziak.

lazio ikasturtearen bigarren erdian, Unibasqek gure Fakultatean eskaintzen diren titulazioak ebaluatu zituen, akreditazioa eman ahal izateko. Gradu hauek ebaluatu zituzten, zehazki: Ekonomia, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Finantzak eta Aseguruak, Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa, eta Marketina.

Lehenik eta behin, Fakultateak berak autoebaluazioa egin zuen, graduen koordinatzaileen bitartez. Horretarako, txosten batzuk egin ziren, eta Fakultateko Kalitate Batzordeak aztertu zituen. Azkenik, txostenak Fakultateko Batzarrak onetsi zituen, Unibasqera bidali aurretik.

Unibasqera iritsi zirenean, kanpoko ebaluatzaileek osatutako batzorde edo "panel" batek aztertu zituen txostenak; txostenak egiaztatzeko, ebaluatzaileak Fakultatera bertara etorri ziren joan den ekainaren 11n. Saiotrinkoa izan zen: panelak elkarrizketa izan zuen Fakultateko Zuzendaritzarekin, graduen eta moduluen koordinatzaileekin, irakasleekin, ikasleekin eta langileekin. Bestalde, ikastegiaren instalazioetara eta guneetara ere joan ziren.

Paneleko kideek oso ontzat eta argigarritzat jo zuten bisitaldia, eta, ondoren, txosten bat idatzi zuten Unibasqerako. Hala, Unibasqek, jasotako informazio guztiarekin, amaierako txosten bana egin zuen Fakultateko graduatarako. Irailean jaso ziren azken txosten horiek: guztiak aldekoak izan ziren, baina bazekartzaten funtsezkoak ez ziren

alderdi batzuen inguruko zenbait gomendio ere. Horrenbestez, Fakultateak eskaintzen dituen gradu guztiak jaso dute akreditazioa, eta, horri esker, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan lehiatzen jarrai dezakete datozen sei urteetan ere.

Beraz, kanpoko adituek aitortpena eman diote gure irakats lanari, eta guztiok egon behar dugu harro egindako lan onagatik, gure ahaleginari esker lortu baititugu halako emaitza onak.

Hori guztia dela eta, eskerrak eman behar dizkiegu enpresa honi arrakasta lortzen lagundu dieten guztiei: lehenik eta behin, irakasleei, ikasleei eta Fakultateko administrazio eta zerbitzuetako langileei, eguneroko lanari esker irakaskuntzaren kalitatea eta ikastegiaren jarduna hobetzen baitute; halaber, graduen eta moduluen koordinatzaileei, egin duten lan partekatuek; bestalde, informazioa biltzeko eta autoebaluazio txostenak idatzeko lan eskerga egin dutenei; eta, azkenik, eskuzabalki prozesuan nolabait lagundu dutenei. Emaitzak merezi izan du.

Fakultateak Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna gogoratu du azaroaren 25ean

Ikastegiko Berdintasun Batzordeak emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko borrokan esku hartzea gonbidatu zituen unibertsitateko kideak. Fakultateko hallean afixa bat jarri zen, hala nahi zutenek beren ekarpen, ideia eta iritziak idatz zituzten emakumeenganako indarkeriaren aurka. Halaber, informazioa zabaldu zen emailez, etxeko indarkeria eta genero indarkeria geldiarazteko borrokan aritzeko baliabide eta zerbitzuei buruz.

Garrantzitsua da gogoratzea gure partaidetza beharrezkoa dela emakumeenganako indarkeria gelditzeko.



Zerga Ikasketen Institutuak saritutako tesia

Zerga Ikasketen Institutuak "Modelos de Elección Discreta aplicados a la asistencia sanitaria" tesiari eman dio José Barea Tejeiro saria. Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak egin zuen deialdia (2015/11/09ko BOE, 12116 Ebazpena), ekonomia publikoaren alorreko 2014ko tesiak saritzeko. Tesi irabazlea Bilboko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Ekonomia Aplikatua II (Ogasun Publikoa eta Zerga Zuzenbidea) Saileko Fabiola Waleska Sigüenza Tamayo irakasleak egin du, eta Petr Mariel Chladkova eta José Ignacio Martínez Churruarke zuzendu dute. Sari horren bidez, Zerga Ikasketen Institutuko ikerketa lerroekin loturiko gaiak buruzko azterlanak aitortu, sustatu eta garatu nahi dira.



Unibertsitatearen eta enpresen arteko harremanak: Marketin Master Sariak, UPV/EHUren bere-bereko sariak

Joan den azaroaren 20an, M^o Soledad Aguirre eta Eva Emmanuel irakasleek Marketin Master Sarien bigarren edizioa aurkeztu zuten UPV/EHUko Mitxelena entzunaretoan. UPV/EHUko Marketin eta Merkataritza Zuzendaritza Masterrean Graduatutakoan Elkaratek eta Enpresari Aplikatutako Ekonomiaren Institutuak antolatzen dituzte sariak (bi erakundeek gure Fakultatean dute egoitza).

2014an eman zituzten lehendabiziko sariak, Master horren 25. urteurrenaren harira. Sarien bidez, enpresek eta beste erakunde batzuek marketinaren esparruan egiten duten lan ona aitortu, sustatu eta jendaurrean erakutsi nahi dute.

Alzola Basque Water enpresari Ekintza Osoaren Saria eman zioten, bere marka eta bere enpresa birsortu, eta berriz sustatzeko izan duen gaitasunagatik; izan ere, 2013an hartzekodunen konkurtsora atera zen. Alabaina, arlo guztietan egindako marketin ahalegin handiari esker, eta diru gutxirekin baina sormen izugarriekin, handik bi urtera 15 lanpostuei eutsi ahal izan diete, eta, horrez gain, beste



zazpi sortu dituzte.

Bestalde, Euskaltelek Ekintza Zehatz Onenaren Saria eraman zuen, bere zerbitzu berria sustatzeko abiatu duen Wifi is in the Air; bizitza kalean gertatzen delako kanpainagatik. Zerbitzu horrek, hain zuzen ere, kaleko wifia eskaintzen die bezeroei.

Enpresa horiez gain, beste hauek ere saritarako aukeratu zituzten: Alboan, Gatazarrik gabeko teknologia kanpainagatik; Flow, Bilboko EMÉrako egindako proiektuagatik;

Komunikatik, Getxo Kirolak enpresarako egindako proiektuagatik; eta Brand Factory, Bilboko Oftalmologiako Kirurgia Institutu Klinikorako (ICQQ) egindako branding eta birkokapen proiektuagatik.

Ekitaldian, halaber, 2014ko edizioan saritutako enpresak izan ziren: La SALVE Bilbao eta SupperStudio. Biak ala biak Masterrean graduatutakoek sortu eta zuzentzen dituzte.

Marisol Aguirre

2015eko Think Big sariak ikasleen lau enpresa ideientzat



Joan den ostiralean, ekainaren 19an, UPV/EHUk Think Big sariak eman zituzten Bizkaiko Campuseko enpresa ideia onenei. Sari horietatik hiru Sariakoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko ikasleek eraman zituzten.

Lehenengo saria STOPLINES proiektuak irabazi zuen. "Enpresen Sorrera eta Ekintzailetasuna" irakasgaitik sortu da proiektua, Jon Hoyos eta María Saiz irakasle doktoreen laguntzarekin. Ekonomia eta Zientzia Fakultateko Ana Sánchez, Yéssica Días, Natalia Romero, Leire Oset, Janire Triguero eta Yaiza Urdiales ikasleek asmatu dute STOPLINES, saltokietan kutxatik igaro gabe ordaintzeko sakelakorako aplikazioa.

Bigarren saria ere irakasgai beretik sortu da, eta bi proiekturen artean banatu da. Alde batetik, Fakultateko ikasle Igor Anasagasti eta Alexander Ramosek sorturiko "Ikastravelling" proiektuari eman diote saria; bidaia agentzien eta ikasleen arteko bitartekaria da. Bestalde, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko, Psikologia Fakultateko, Arte Ederren Fakultateko eta Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko ikasle Jon Barredo, Paula Ispizua, Iñigo España, Alejo Lauro eta Israel Betolazak egindako "Never too late" proiektua saritu dute; arrisku kirolak eta mendiko kirolak merkatuko nitxo gisa ustiatzea du helburu proiektuak.

Azkenik, Ikerketa Biomedikoaren Masterretik sortutako QUIMIONUT proiektuari eman diote hirugarren saria; proiektu horrek minbiziaren kontrako terapiak lantzen ditu, kimioterapian eta nutrizioan oinarrituta. Medikuntza eta Odontologia Fakultateko Iera Hernández, Emma Martínez eta Alba Herrero ikasleek "Oinarri Teknologikoko Enpresak Sortzea" moduluan egin zuten proiektua; modulu hori ere María Saiz doktoreak ematen du.

UPV/EHUko ekintzailetasuna bultzatzeko ZITEK programak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta BEAZek sustatu dute Think Big, ikasleen izaera ekintzailea indartzeko. Hori helburu, ZITEKek Bizkaiko Campuseko ikasle, ikertzaile eta irakasle guztiak animatzen ditu beren ezaguerak zerbitzu edo produktu berritzaileak sortzeko baliatzeri eta ideiei ekitera. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea 50.000 pertsonak baino gehiagok osatzen dute, eta bertan lantzen da Euskadin egiten den ikerketaren % 70 baino gehiago; ildo horretatik, jakintza hainbat arlotako milioi laurden titulatu sortu ditu jada.

Ekonomia Olinpiadaren zazpi-garren edizioa



Apirilean, Ekonomia Olinpiadaren VII. Edizioa egin zen Euskadin. Ekonomia Olinpiada lehiaketa akademikoa eta hezkuntzari lotua da, non bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuak ikasleek parte har dezaketen, ikasturte horretan Euskadin batxilergoko 2. mailako Ekonomia eta Enpresen Antolakuntza irakasgaien matrikulatuta badaude. UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak antolatuta du, etorkizuneko ikasleekin eta batxilergoko irakasleekin harremanak sortzeko. Edizio honetan 176 ikasleek parte hartu dute: 92k gaztelaniaz eta 84k euskaraz. Guztira 28 ikastetxetatik etorri dira. Lehenengo bi sailkatuak, Roberto Gobeña eta Unai Martín, Askartza Claret ikastetxeak dira; Olabide Ikastolako Nerea Heras izan zen hirugarren, eta laugarren eta bosgarren Alvaro Salazar de Gurendez eta María Landín izan dira, Marianistas eta Ayalde ikastetxeetakoak, hurrenez hurren.

Ekonomia Olinpiadak zientzia olinpiadaren aitortpena lortu du Hezkuntza Ministerioan, eta beste fase nazional bat du: 2015ean Malagan egin da. Tokiko fasean sailkatutako hiru ikasleek Euskadi ordezkatu dute, baina, tamalez, oraingoan ez dira lehenengo hamarren artean sailkatu.

Mercedes Vallejo



Ekonomia eta enpresako doktoregoen i. Jardunaldiak

2015eko urriaren 7an, 8an eta 9an

Bilboko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean

2015eko urriaren 7tik 9ra, Ekonomia eta Enpresako Doktoregoen I. Jardunaldiak egin ziren. Gure Fakultatean egiten diren lau doktorego programek (Ekonomia; Ekonomi Analisirako Tresnak; Ekonomi Integrazioa; Finantza eta Ekonomia Kuantitatiboak / Quantitative Finance and Economics; eta Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntza) ekitaldi hori antolatzen lagundu dute: hain zuzen ere, nazioartean ospe handia duten ikertzaileak eta ikasleak gonbidatu dituzte, ikerkuntza akademikoko proiektuak eta ekonomia eta enpresaren inguruko

gaur-gaurko gaiak aurkezteko eta eztabaidatzeko.

Hizlari aritzeko gonbidatutako irakasleek ikasgai magistral bat eman zuten beren espezializazio arloan, eta gero, programaren erdian, ikasle partaideen doktorego tesien aurkezpenak entzuten eta iruzkinak egiten aritu ziren.

Ekitaldiaren lehen saioan, urriaren 7an (asteazkena), Carlos III.a Unibertsitateko Carlos Velasco irakasleak Econometría para Modelos de Datos de Panel ikastaroa eman zuen, goizez. Arratsaldean, berriz,

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedradun Inés Macho Stadlerrek Teoría de contratos con información asimétrica y una aplicación ikastaroa eman zuen.

Ostegunean, urriak 8, doktorego programetako ikasleek parte hartu zuten. Guztira hamaika doktorego tesi aurreratu aurkeztu zituzten goizean, eta hamaika ikerketa plan edo hasiera faseko doktorego tesi arratsaldean. Aurkezpen bakoitzaren ondoren, bertaratuek galderak, iruzkinak eta eztabaida egin zituzten.

Azkenik, ostiralean, urriak 9, Parisiko Institut des Amériqueseko Robert Boyer irakasleak bi hitzaldi eman zituen goizeko lehen txandan: "The crisis of European integration as a test for the relevance of modern theorizing" eta "How to design a stimulating, rigorous and relevant research question". Bigarren txandan, berriz, Centro de Estudios Monetarios y Financieros zentroari atxikitako Ekonometriako katedradun Manuel Arellanok "Earnings and Consumption Dynamics: A Nonlinear Panel Data Framework" hitzaldia eman zuen. Amaitzeko, arratsaldean, Valentziako Unibertsitateko Joaquín Aldás irakasleak ikasgai magistrala eman zigan: "Introducción a los Modelos de Ecuaciones Estructurales".

Lau doktorego programen koordinatzaileak antolatu dugu ekitaldia, eta eskerrak eman nahi dizkiogu Master eta Doktorego Eskolari batez ere, Jardunaldi hauek antolatzeko eman duen finantzazioagatik, bai eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateari ere, eta bereziki hango dekanotzaleari, egindako ahaleginagatik eta emandako laguntzagatik. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu Fakultateko sail guztiei, bertako irakasleek ekitaldia antolatzen edo ekitaldian parte hartzen lagundu dutelako. Azkenik, eta berdin da garrantzitsua, eskerrak eman behar dizkiegu hitzaldiak eman dituzten eta bertaratu diren ikasleei, parte hartzeagatik.

Espero dugu lehendabiziko edizio honen ondoren beste hainbat etortzea, eta Ekonomia eta Enpresa Zientziak osatzen dituzten diziplinen artean ezagutza partekatzeko foro gisa balio izatea.

Josu Arteche, Jon Charterina, Jesús Ferreiro y María Araceli Garín
Coordinadores de los respectivos Programas de Doctorado de la Facultad

I JORNADAS DE DOCTORADO EN ECONOMÍA Y EMPRESA

EKONOMIAN ETA ENPRESAN I. DOKTORADUTZA JARDUNALDIAR

7 a 9 de octubre de 2015eko urriaren 7tik 9ra

Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales - Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea UPV/EHU (Bilbao)

Programas de doctorado organizadores:

- >Economía: Instrumentos del Análisis Económico
- >Integración Económica
- >Finanzas y Economía Cuantitativas / Quantitative Finance and Economics
- >Dirección Empresarial, Conocimiento e Innovación

Doktoradutza Programa antolatzaileak:

Más información: www.ehu.eus/es/web/mde/1jornada-doc-econ-y-empresa

Informazio gehiago:

Laguntzaileak: MDE

Colaboradores: Dpto. Economía Aplicada III (Econometría y Estadística), Dpto. Economía Aplicada V, Dpto. Economía Financiera e Dpto. Fundamentos del Análisis Económico I